

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure funtsezko baliabideak lau taldeetan sailkatzen dira: baliabide fisikoak, baliabide intelektualak, giza-baliabideak eta finantza-baliabideak.

Baliabide fisikoetan, produktua aurrera eramateko erabiliko dugun lokala egongo da erabiliko ditugun makinekin batera. Gure produktua online salduko dugunez ez ditugu garraio elementurik beharko. Garrantzitsua izango den baliabidea sistema informatikoa da, dena online egingo dugunez ezin dugu erabili sistema ahul bat, sendo bat baizik.

Baliabide intelektualetan, lehendabizi marka bat sortu eta patentatu beharko dugu.

Giza-baliabideetan, ez ditugu langilerik kontratatuko, gu izango gara gure enpresako langileak. Batzuk sormenaz enkargatuko dira eta besteak salmentetaz.

Finantza baliabideak, partaideek inbertituko dugun dirua eta posible kreditu-lineak izango dira, hauek materiala, soldatak, makinak eta beste erosketa batzuk ordaintzeko erabiliko ditugu.